

Un deseo de forma / Orriak #3

---

*Everything Before 1994 Was Meaningless*

Sands Murray-Wassink

### 1994aren aurreko ezerk ez du axola\*

Op ieder potje past een dekseltje. = Badago norbait mundu guztiarentzat. Nerabea nintzela, Topekan, poster tamainako argazki bat neukan: bi hipopotamo agertzen ziren, elkarri "musuka" ur urdin argitan, eta esaldi horrekin: "Badago norbait mundu guztiarentzat". Gaztaroan, Topekan, behin baino gehiagotan helarazi zidaten honako mezu hau (80ko hamarkadaz eta 90ekoaren hasieraz ari naiz): tipo queerra izanda, bakarrik egongo nintzela beti, nire bizialdian gau bakarreko enkontruak kateatuko nituela bata bestearen atzetik, eta, are gehiago, gizonezko "lagun" hetero batek esan zidan (lagun mina nuen, Robin deitzen zen bera ere, eta Cacharel-en LouLou perfume handiaren zalea zen)... lagun hark esan zidan harekin eta haren bikotekidearekin bizi nintekeela bien etxeko sotoan, Addams familiako "Osaba Fester" bezala. Harrigarria, baina ez urte hauetan guztietan jendeak esan dizkidan beste gauza batzuk baino harrigarriagoa. Forma, niretzat, gauzak sentitzen ditugun modua da, eta sentimenduak, niretzat, egitateak dira. Behin batean, ospitale psikiatrikoan, 2003an nirekin batera Amsterdameko AMC erietxean zeuden beste 60 pazienteetako batek, nire senar/kide Robin ikusi zuen lehen aldiz, nire bila etorria baitzen, eta hurrengoan ikusi ninduenean aurpegira esan zidan: "Ez nuen espero hain planta ederreko mutil-laguna izango zenuenik".

Luze jarrai nezake. Robin lo dagoenean nire aldamenean, eta ni esna natzala, pentsakor, nire beste erdia lo dagoela sentitzen dut. Duman, gure katua, zeinak 7 urte baititu eta erdi-itsu baitago, gure ohera sartzen da azkenaldian, eta poz-pozik lo egiten du, tapakiekin guztiz estalita, 20 minutu inguruz. Gauza gozoagorik. Lehen asko gustatzen zitzaidan azukrea, baina azken urteotan beganoa egin naiz, eta harrezkeroztik nahiago dut gazia. Bata bestearekin nola jarduten garen funtsezkoa da, eta gogoan ditut psikologikoki eragin dizkιδaten zauri guztiz ugariak. Zenbatu egiten ditut. Nire lehengusu txiki Eric, amaren aldeko amonaren ahizparen semea, ertzetako figura famatu samarra izan zen New York Cityko klubena kultura undergroundean, 90eko hamarkadan. Eszena hura estimatzeko adina zuen justu, eta familiaren diruari eta bere negozio propioari esker –galtzerdiak diseinatzen zituen– baliabide mordoxka zuen lan egiteko eta glamour handiz bizitzeko. Ericek garai hartan egindako bideoak ikusi nituen atzo YouTubean, irudi pikortsuak; niretzat, alderdirik zirraragarriena, kontuan hartuta seropositiboa naizela eta nire hilkortasunaren jakitun naizela, hau zen: gizonezko gay bat bideoan agertzen zen aldiro, Ericen pertsona horren bizialdiaren datak gehitu zituen, eta askotan ez ziren izaten 30 edo 40 urte baino askoz gehiago. Negar egiten dut gizon gay horiengatik, galera horiengatik, gizon horiek plazerraren eta konpromisoaren eta konexioaren bila abiatutako bilaketa xaloarengatik, hementxe nago beren heriotzagatik negarrez, aldi berean gogora datozkit munduko liskar guztiak, izan direnak eta badirenak, gogora datorrit egunero-egunero jendea hiltzen eta torturatzen dutela munduan. Gogora datozkit Jeffrey Dahmer, John Wayne Gacy Jr., Dennis Nilsen eta abarrek hildako mutil eta gizon guztiak. Zer-nolako izugarrikeriak ez zituzten pasako. Aldi berean, aurpegiko malkoak lehortu ahala esklabotza garaikidearen kontzientziak kolpekatzen nau, eta betaurreko lanbrotuak jartzen ditut ohetik altxatzeaz batera, goizeko 10:30etan, perfumez eta bitxiz eta bestelako produktu garestiz betetako gela batean nago. Diru hori dena beste batzuentzat izan zitekeen, janaria, alokairua, osasun-asegurua etab. etab. ordaintzeko. Eta nire kautan

galdetzen dut: Zer egin nezakeen diru hori behar zen tokira irits zedin? Posible ote da oraindik ere funtsak sortzea nire bizitzara iristen den diruarekin? Gaur goizean kaka egin dudanean, ipurdia garbitu eta odola zegoen, eta ponpari tiratu aurretik komun-zulora begiratu eta han ikusi dut gorri bizia marroiarekin eta horiarekin nahasian. Izugarria, ia zorabiatu egin naiz minbiziaz eta kolostomiaz akordatuta.

Eta gero pentsatu dut sekulako zortea izan dudala; Ericen filmetan halako jendea agertzen da: Nina Hagen eta International Chrysis eta David Spada eta Sylvia Miles, denak ere New York Cityko ohiko piztiak edo hirian behin-behinean zeudenak. David Spada HIESak jota hil zen: [https://en.wikipedia.org/wiki/David\\_Spada](https://en.wikipedia.org/wiki/David_Spada) 34 urte zituela hil zen. Negarrez nago berriro, aurrera eta atzera kulunkatzen naiz, malakoak aurpegian behera. Deep house estiloko kantu bat entzuten ari naiz behin eta berriro bozgorailu garesti batean, eta hemen eserita nago, hiru albornoz soinean, aurtengo neguan berogailua itzalita edukitzen baitugu egunez, gasa aurrezteko. Zenbat gizon hil ziren, zenbat pertsona hil ziren, zer-nolako errugabetasuna, Jainkoarekiko kontu-garbitzea. Ez dut sinesten Jainkoan, halako Jainkosa orojakile batean baizik. Linda Mary Montano performance-artista eta biok Facebook bidez hizketan jardun ginen atzo, Ericen bideo fantasma-itxurakoak ikusi aurretik justu, eta gif bat bidali zidan, zeinetan emakume bat agertzen baitzen, elastiko arrosa, praka zuriak eta oinetako zuriak soinean zituela, kalean behera dantzan, aldiri-itxurako eremu batean. Erantzun gisa, esan nion horrela senti litezkela mundura energia onak ekartzen dituzten pertsona guztiak, eta akaso artistak bereziki. Berak hau idatzi zidan:

Linda Mary Montano:

"LoI. IZUKAITZASUNARI BURUZKOA DA. BERE SEN EPAILETIK ATERATA DAGO. KONTUA EZ DA MINDFULNESS IKASI DUELA. IZUKAITZA DA ETA BERE BURUA ADIERAZTEN DU NATURALKI ETA INORK IRAKATSI GABE. GUTAKO GEHIENOK \$\$\$\$ xahutzen ditugu terapian eta lantegi espiritualetan bera den modukoa izateko. LoI."

Hala erantzun nion:

Sands Murray-Wassink:

"Ulertzen dut, egia esan izukaitz samar sentitzen naiz muinean. Larrutik ordaindu dut, bizialdi osoko sufrikarioak izan dira, eta aitona psikoanalista freudiar bat amaren aldetik (alde judutik). Hara, zure lanak zerikusia du nirekin (beste kontu askoren artean) nire heziketa eta historia erlijiosoagatik eta nire familiaren historiagatik. Azken 26 urtean nire senarra izan denak, Robinek, izukaitza izaten erakusten dit maitasunaren boterea erakutsiz, eta hori da nire espiritualtasuna (eta horrekin batera sexua eta perfumeak eta artea ere bai, ordena jakinik lehenetsi gabe) kar-kar".

Lindak, gero, autore bat aipatu zidan, eta esan zidan asko maite zituela nire historia eta bizitza, eta bere barneko Marion Woodman txaloka ari zela: [https://en.wikipedia.org/wiki/Marion\\_Woodman](https://en.wikipedia.org/wiki/Marion_Woodman)

Ez dakit zergatik bizi naizen halako "burbuila zuri mendebaldarrean", baina hala da. Koloreko jendearekiko ditudan interesak eta aliantzak ere ikuspegi zehatz batetik datozela iruditzen zait. HIESaren krisiaren gailurrean hildakoekiko oinaze handia sentitu ohi du jendeak, ni ez nator bat sufrimendu orokor horrekin, eta

bereziki gizonen kasuan. Badirudi inoiz ez dela beste pandemiarik izan, eta exekuzio eta jazarpen sistematikorik ez dela izan. Kasu honetan, alde nagusia SEXUarekiko lotura zuzena zen. Sexua beti da faktore erabakigarri bat, baita sexu-jardun aktiboa ez duten pertsonentzat ere. Sexua bizi-indar bat da, eta nire genitalak nire arima dira, nire hankartean dagoen guztia, aurre eta atze. Gizonaren gorputzetik isuritako odolak beste esanahi bat du. Ezin du izan hilekoaren odola. Zauriak eta heriotza iradokitzen ditu. Behin haluzinazio bat izan nuen, giza hezurrak flotatzen Topeka ibaian (Kansas), jaio nintzen paisaian. Hezur zuri garbiak. Energia mental mordoa daukat, betidanik eta 48 urtez bizirik iraun dudan honetan oraindik ere, eta nire irudimena aktiboa eta herraria da. Gogoan ditut Carolee Schneeman eta Hannah Wilke. Gogoan dut Paul Thek. Gogoan dut Adrian Piper, eta gogora datorkit azken horren iradokizuna, Frank Wagner gizonezko kuradore queer alemana aurkeztuko zidala proposatu baitzidan, eta nik gizon hori jada ezagutzen nuen eta mespretxua nion. Beharbada orain Adrianek ni mespretxatzen nau edo nirekin haserre dago artxibo-jardunari buruzko aholku batzuk eman zizkidalako 2012an email bidez, eta haren esanak baliatuta proiektu bat garatu dudalako nire pentsamendua eta lana ahanzturatik salbatu nahian: [www.giftsciencearchive.net](http://www.giftsciencearchive.net).

Gaur goizean kaka egin ostean ikusitako odolak gogora ekarri dit nire egunak amaitu egingo direla, gertatzen dena gertatzen dela. Gauzak sentitzen ditut. Hori forma da. Hau idazteko bulkada bizitzaren aldeko garrasi batetik etorri zen, bizitzaren aldekoa heriotzaren gainetik, nahiz eta ondotxo dakidan bat eta bera direla:

Linda Mary Montanoren Teoria Arteaz / Bizitzaz:

"Hasi nintzen garaian, performance artistek baimena zuten ametsak, fantasiak, amesgaiztoak, traumak, gaixotasunak, janaria, kulturako ezer eta kulturako guztia aztertzeko. (Gu) oso-oso eroso sentitzen ginen ezer ez jakinda eta ezer egiteko gai ez izanda, soilik ametsen, irudimenaren eta argitasunaren mugako munduan murgilduz. Modu guztiz autobiografikoan lan egiten dut. Zerbait txarra gertatzen bazait, bideo bat edo performance bat egiten dut. Ezertan asmatu badut, bideo bat edo performance bat egiten dut, edo liburu bat idazten. Beharrak gidatzen nau oso-osorik. Garunaren neuroplastizitateari buruzkoak irakurri ditut, sormenari eta meditazioari buruzko ikerketak, eta gogo sortzaileak zer-nolako ahalmena duen gauzak konpontzeko. Txundituta nauka nolako gaitasun miragarriak dituzten burmuinak eta arteak sendatzeko, hautsitakoa konpontzeko. Nire artean estasia ere ospatzen da. Nire prozesua lan egitea da. Artea da nire lana, eta nire ogibidea".

Nire aurretik etorritako horretan oinarritu behar izan dut. Hitz idatziak gustuko ditut, beste apaingarririk gabe. Niri zerbaiten funtzionamendua azaltzen saiatzen direnean, posizio bat hartzen saiatzen direnean. Behin eta berriro erakartzen nau 1970eko hamarkadako arte feministak. Nolabaiteko esentzialismo bat. Gizatasunaren esentzialismoa. Gizaki izatearen esentzialismoa. Gauza mordo bat esan eta egin dut azken urteetan, eta iruditzen zait ia ez dela ezain kulturatan barneratu. Horrek esan nahi du behin eta berriro errepikatu behar ditudala gauzak, eta nire balioa erakutsi behar dudala etengabe; azken batean, hori da zahartzea. Atzean utzi nahi ditut konplexu batzuk, baina ohitura zaharrak nekez ezabatzen dira. Azken sei hilabeteetan, adibidez, izoztuta geratu naiz erantzukizun publikoen aurrean, eta horrek are indar handiagoz eramaten nau nire aurretik izandako arte feministara. Gizon-gorputz cis batetik azaldu behar dut zer den bizirik eta

gorpuztuta sentitzea. Hala, zerbait itzultzen ari naizela iruditzen zait, bai nire aurretik izandako arte feministari, baita munduari berari ere. Kezkatuta naukate nire depresioek. Estresaren ondorioz, ezgai sentitzen naiz, gaizki sentitzen naiz nire buruarekin, eta ia urte eta erdiz testu honen idazketak ihes egin dit, ez neukan idazteko gogorik. Esaldi labur txikiak baino ez ditut idatzi, nire Zaldi Margolanei laguntzeko, zeinei argazkiak atera eta Instagramen jartzen baititut gero. Badirudi barne-bakarrizketaren fasea igaro dudala eta orain guztia fragmentutan ateratzen dela. Grabitateak, batzuetan, beherantz narama herrestan. Zalantzan jartzen dut nire gorpuztea eta fisikotasuna / itxura, eta azkenean gauza ederrez inguratzen dut nire burua, gauza harmoniatsuz, hala nola perfumeak, bitxiak, soinekoak etab., eta, horretaz pentsatuta, txiki-txikia nintzela maite nituen kontuak dira, nire generoarentzat egokiak ez omen zirenak. Izan ere, debekatu egin zizkidaten, eta nire iraganarekiko drag trafiko honek egiten nau gaur egun naizena. Bihotzeko minek eta bazterketa guztiek eta tratu txarrek. Ezin ditut ahaztu. Forma bat hartu dute nire baitan. Ez da samintasuna, berez, halako fantasma bat baizik: forma ilun belzkara bat, nire kontzientzian flotatzen. Interesgarria iruditzen zait, hain argia da-eta, fantasma-itxura badu ere. Kezkatu egiten nau sexua deskarga, ihesbide eta entretenimendu gisa hartzeak. Nire bizi osoan hari gorri bat izan da, sexua. Nire genitalak dira nire arima, aurre eta atze nire hanken artean. Hortik dator nire sormena eta nire inspirazioa. Indar gidariak. Konektatuta daude burmuinarekin eta hormonekin / testosterona etab. / odola - elikadura / zelulak / bizitza ponpatzeko mekanismoak. Nire sormenak hauspotuta, mundua leku hobea izan dadin lagundu nahi dut. Gauzak falta diren lekuan gauzak gehitzea, hautatuz, han eta hemen. Tente eusten saiatzen, nahiz eta, berez, etzan eta lo egin nahi nukeen, betiko...

Nire burua behartzen ari naiz eta hala jarduten naizenean asko errepikatzen dut "ni" hitza, bestela beldur bainaiz desagertuko naizen. Alferkeriak zehatz bilakatzen nau. Hona hemen nire logikarekin eta psikearekin bat datozen hitz giltzarrien zerrenda bat. Nire gogo kontzientean zein inkontzientean distiraka:

Alde batera utzia, baztertua, alboratua izatea...

Zergatik den Adrian Piper garrantzitsua niretzat, morala eta etika eta jokamolde interpersonalak... Jendeari erantzukizuna eskatzea esaten eta egiten duenagatik.

Hannah Wilkeren espontaneotasuna

Carolee Schneemannen kemena

Adrian Piperren zorroztasuna

Arte feminista eta feminismoa dira lan gehien behar duten arloak, eta esker txarrekoak dira

Zatiketa interseksionalen arteko elkartasuna..... bipolaritatea eta buru-egoerak

Dirua, eta dirua irabaztea, kapitalismoen kontra lan egin bitartean

Foku geografikoa eta burbuila zuriak (frustragarriak)

Judua izatea eta Holokaustoa etab., nola tratatu zituzten juduak eta Israelen kolonialismoaren eta zionismoaren auzia

Zergatik den garrantzitsua musika, deep house margotzeko etab.

Zergatik den oso garrantzitsua lan goiztiarra

BIZIRIK IRAUN IZANA ONARTZEKO ARTEA

Laguntasuna

Konfiantza

Maitasuna

Bizitza

Heriotza

Andrea Dworkin

Amorrua

Poza

Perfumea?

Nahaspila?

Nahaspila semantikoa, nahaspila psikologikoa, psikologia, nahaspila fisikoa, nahaspila filosofikoa

Erreferentzia / erreferentziala

Zitazionala (bai, hitz bat da)

Instrumentalizazioa

Norbere gorputza erabiltzea, neure gorputzarekin egiten dudanez ez da pornografikoa (?)

Shock balioa

Probokazioa

Nartzisismoak

Beste artista batzuk

Arte munduetako kide gaiztoak, izenak izendatzea

Kidetasuna / kidetasunak

Iraunkortasuna

Iraupena

Geroko efektuak, zer gertatzen den artearekin eta arte-objektuekin eta arte-pentsamenduaren leinuarekin norbera hiltzen denean

Hil ondoko bizitza, hil ondoko bizitzarako / hil ondoko bizitzetarako lan egitea

Babilonia

Generoa

Sexualitatea

Genero fluidotasuna

Sexu-klasizismoa

"Tradizioa"

Denboragabetasuna

Legendario-kategoria

Kategoria ikonikoa

Kategoria ikonoklasta

Bazter-nahasleak

Ez da hain erraza jendea kategoriatan edo kaxatan sailkatzea

Editatzea

Edo ez editatzea

Dena erakustea

Gorputz organiko, usaintsu, jariakorra

Sentsualitatea

Sentsazioa

Arrandiatzea

Fama

Prestigioa

Haurrik gabeko leinua

Queer familia

CV / Biografia

Arropa / Moda

Pisua

Kultura

Norberak bizitako esperientziak eta istorioak

Istorio ez-linealak

Ahozko istorioak

Txutxu-mutxuak

Zekenkeria

Astakeria

Denboraren kontzeptua

Feminitateak

Maskulinitateak

Binarismoa

Ura

Lurra

Ekofeminismoa

Airea / Zerua

Ozeanoa

Bizi-formak

Beganismoa (osasuntsua edo ez? Etab.? Animalien oinazea...)

Erosotasuna

Bilduma egitea

Perfumea

Perfumea ematea

Bitxiak

Jabetzak

Jabegoa, ondasunak

Nazionala

Hizkuntza!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!

Argitasuna

Iluntasuna

Gogoberotasunak

Adimena



Burugabea

Azkarra

Ergela

Ergeltasun azkarra

Haurren pare jokatzea

Pentsamenduak

Sentimenduak

Emozioak

Harremanak!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!

Portaera

Masa-komunikabideak

Internet

Gauzak erostea

Salerosketa-terapia

Abereak

Erantzukizuna

Balioa

Ausardia

Haurrak (gizakiak)

Helduak (gizakiak)

Sexua

Poesia

Prosa

Literatura / idazleak / zer esan nahi du idazle izateak? (edonork egin dezake)

Zentsura / autozentsura

Pariak

Fokuak

Itzalak

Arimak

Mamuak

Errealitate fisikoa

Oinazea (fisikoa / burukoa)

Diagnostikoa / sendagileak / tratamenduak

Altruismoa

Filantropia

Eskuzabaltasuna

Kezkatzea

Modako hitzak

Ahaidetasuna / lagunak + ahaideak

Eguzkia

Ilargia

Izarrak

Galaxiak

Unibertsoa/k

Zientzia

Egia

Gezurtiak

Zentroa / Ez-zentroa / Bazterrak

Entzutea

Tefloia (gauzak itsasten ez direnean)

Modeloak / ordezekoak / plazer eta bizitza bikarioak, etab.

Fama

Deskarga

Hegan egitea

Igeri egitea

Oinez ibiltzea

Larrua jotzea

Kaka / pixa egitea

Korritzea

Odola

Hormonak

Familia

Zaletasunak

Exotismoak

Fruta

Janaria

Jasangarritasuna

Eztabaidak

Iraupena

Iraunkortasuna

Indarguneak

Ahulguneak

Idazlearen blokeoa

Artistaren blokeoa

Lagunak

Maitaleak

Sexua / Maitasuna zatiketa (gizonak / arrak etab.)

Estereotipoak

Irrimarrak

Boterea

Menderakuntza

Sumisioa

Matxinada

Estrategia

Intuizioa

Esnatzea

Loa

Fenomenologia

Ametsak

Psikologia

Terapia

Botikak / pilulak etab.

Beldurra

Ikastea / Desikastea

Erregresioa

Hazkuntza

Haziak

Marihuana / "drogak"

Gorrotoa

Mesfidantza

Aldaketa

Fluxua

Eguneroko existentzia

Zaila

Erraza

Tartekoa

Anbibalentzia

Ezbaia

Nahasmena

Frustrazioa

Erronka

Ulertzea / ez ulertzea

Jeloskortasuna

Gorespena

Gosea

Elikadura

Bizitza begetala

Erlazionagarritasuna (zerbaitekin erlazionatzeko gaitasuna)

Ahalmena / ahalmenkeria

Hierarkiak

Kontingentziak

Eva Hesse

Ahalegintzea

Jarioa / Água viva / Clarice Lispector

Harrapatzea

Aske

Askatasuna

Tirania

Arauak

Arauak haustea

Gaizkileak

"Krimena"

Zigorra

Kartzelatzea

Heriotza-zigorra

Eutanasia

Telebista

Sare sozialak

Sumina

Basatasuna eta egia hutsak

Bulba / Zakila / Intersex / Genitalak / Uzkie

Eragina

Ikasketak

Eskola

Graduazioa

Tituluak

Beroa

Hotza

Izoztea / kriogenia

Egostea

Hiltzea / erailketa

Justizia

Zintzotasuna

Gaua

Eguna

Komunitatea

Desegonkortzea

Apala

Umila

Sinpleki? Noren sinpleki?

Maitasun konpainia?

Adina / Zahartzea

Adarbakar bat naiz

Deserosotasuna

Forma hizkuntza bat da / Hizkuntza figurazioa da, forma bat / Forma edukia da

Gauzak azken unerako uztea

Distira purpura

Foku purpura lausoa

Esperimentala

Gorpuztea

Ibilbide bat eraiki dezakezu pribatuan?

Deserosotasunari eustea

BEHAR ZAITUT/ZAITUZTET

Pentsamendu solte batzuk aurreko oharretatik: Carolee Schneemann izan nuen irakasle, eta horren ondorioz ez naiz Keith Boadwee bezalakoa, zeinak, uste dut, Charles Ray izan baitzuen irakasle (zorionekoa), eta Paul McCarthy ere bai (are zorionekoagoa). Ez naiz hura bezalakoa zeren, gizon cis gaya izanagatik ere, emakumezko artistekin gizarteratu naiz eta intelektualki haiekin identifikatzeko baldintzatua izan naiz, txiki-txikitatik; haurra nintzela, nire birramona Norma Isaacs Topekara (Kansas) etortzen zen, han hazi bainintzen, eta Marko Aureliori buruz hitz egiten zidan filosofian, eta koloreen teoriari buruz pinturan. Dena dago artearekin lotuta, artea eta artista naiz aldi berean. Artea eta artista naiz aldi berean. Artea eta artista naiz aldi berean. Burua jiraka. Burua jiraka. Jainkoarren, gizonki idazten dut benetan. Genitalak itzelak / goxo-goxoak dira (eta esaldi hau aipatu dezakezue eta aipatu beharko zenukete). Zapaltzailez beteta dago mundua. Nire gurasoen adineko jende pila bat hiltzen ari da (ia 80 urte), gazteagoak ere bai, eta orain nik bete behar dut postu artistikoa.

Andrea Dworkinen aipu bat, 1991koa:

"Zure lehentasun nagusia oinazetik gabe bizi izatea baldin bada, ez zara gai izango zure buruari edo beste emakume batzuei laguntzeko. Garrantzitsuena gudari bat izatea da. Borroka politikoa ohoretzat hartzeak sendatu egiten du. Diziplina beharrezkoa da. Emakumeei kalte egiten dieten gizonen aurkako ekintzek egiazkoak izan behar dute. Irabazi egin behar dugu..."

Horra hor @andreadworkinmovie filmeko aipu bat, zeina duela gutxi atera baita. Nan Goldin ere dokumental batean agertu da berriki. Asko argaldu da, eta bizitza eroa izan du. Nire buruari galdetzen diot ea haren modukoa naizen...

Sinetsita nago erdizka mutila eta erdizka neska naizela. Erdizka gizona eta erdizka emakumea izatearen muinean.

Beti sentitzen dut ez naizela argia, baina hau da dudaren garun bakarra. Beharbada nire adimena emozionala da batez ere...

Iruditzen zait erretorika hutsal mordo dagoela "sentipen" eta "zaintza" eta antzeko hitzen inguruan (hitz mordo baten inguruan, hala nola dolua, maitasuna, poza, elkarrekin egotea, etab. etab.) eta beharbada kaka esaten ari naiz. Askotan sentitzen dut horretan ari naizela. Eta, bestalde, beren burua zuzentzat jotzen duten pertsonak ikusten ditut nire ustez guztiz zalantzarriak diren gauzak egiten eta halako jendearekin lanean. Eta nahasgarria da. Eta jendeak esan dizkidan gauza harrigarrietara narama berriro. Esate baterako, beste artista batekin harremanetan jarri nintzen eta galdetu nion ea zergatik ez zidan esan Carolee Schneemannen omenezko erakusketa batean parte hartuko zuela, Carolee izan baitzen nire argi gidaria 25 urtez, 19 urte nituela nire irakaslea izan eta gero, eta xeheki azaldu nion interesgarria iruditzen zitzaidala Caroleeri, hil ostean, nola leporatzen dioten zuri egia zela, heteroegia, pribilegiatua cis-zentzuan etab. Eta horrek erakusten dit emakumeen lorpenak maiz gutxiesten dituztela, haien jeinu esperimentalak isilarazteko ahalegin patriarkal batean. Beste ezein artista feministari ez dizkiote leporatu Caroleeri orain leporatzen ari zaizkionak. Eta zaugarri agertu zen, bere lana hain baitzen efimeroa eta ez-finkoa, mugimenduan zegoen beti, bizitzaren beraren jarioaz beteta. Uste dut jendea jeloskor eta nahastuta dagoela. Ez dakit nork esan zuen, baina baten batek esan zuen hau dela egin daitekeen gauzarik

amorrargarriena: norbere kontuez arduratu eta egin beharrekoak egin, fokuetatik kanpo. Patriarkatua sumindu egiten da ez gaudenean bere mende. Edonola ere, harremanetan jarri nintzen artista honek, zeinak ondo baino hobeto baitzekien, isilik geratu ordez, nigana jo behar zuela, erantzun egin zidan eta behin betiko ebatzi zuen bere patua, hau esanez: "Ez naiz zure ibilbidearen arduraduna". Irrigarria da, zeren gaur egun, munduan, artista gutxi batzuk daude behartuta beren baliabideekin bakarrik jardutera, eta hala egin behar izan dute lehen ere... Bada, gutxi horietako bat nauzue. Nire hartzaile idealak emakumezko artistak dira, eta patriarkatuak eskatzen digu hitz egin diezaiogun eta amore eman diezaiogun, eta aldi berean artea guztiontzat da eta ez da jarduera berezitu bat. Beraz, itopuntu bat edo kolpe bikoitz bat da. Baina, zentzu esentzialista batean, sinesten dut artea ere zientziaren modukoa dela eta berezko ikerketa-logika bat duela. Ez du izan behar denak iristeko modukoa. Espazio lehiatu eta polemiko bat da, non gauzak gerta daitezkeen. Eta queer naizenez, badakit zein zaila den bizitzan barna nabigatzea, testu honen hasieran esan dudan bezala. Heriotzak harrapatzen ez bazaitu, patriarkatuak harrapatuko zaitu agian. Beraz, asmakorra izatea eta esperientzia eraldatuz atmosferak sortzea da aurrera egiteko bidea... Eta atmosfera hitza funtsezkoa da: guztiz ikusgarria eta indartsua baita, eta aldi berean ikusezina. Gauza batzuk, ikusmena izanda ere, ezin ditugu ikusi, baina sentitu egiten ditugu. Nire bizitza osoa emakumea ez izateari buruzkoa izan da. Esanahiak ihes egiten du. Sexua da erantzuna (?). Arte feministaren erronkari erantzuteko modu bakarra gizon ikuspegi batetik gizon-kontu guztiei buruz hitz egitea da. Ezin naiz inoiz askea izan, nire jatorri psikologiko iluna dela eta. Baina askatasuna uneka iristen da eta ez da inoiz / ez da konstantea. Dirua azkar xahutzen dut, ez dudalako uste merezi dudarik. Nire kasuan, eta beste askoren kasuan ere bai, kontrolarekin lotuta dago dena; behiala norbaitek esan zidan performance artistak kontrolatzaile porrokatuak garela. Baina artista guztiak ez al dira ba performance artistak?

Azkarra eta ergela naiz aldi berean. Ez da lorpen makala. Gizon eta emakumx. Boi eta Grrrl. Zakila eta igarobidea. Bulbaren espazioa nonahi dago. Atmosfera bezala. Feministak ona esan nahi du. Patriarkatuak txarra. Horra hor pentsatzeko kontu batzuk.

Non lortzen dut dirua? Nola irabazten dut? Azaleratan markak eginez. Horrela lortu nahi dut dirua. Energia-arrastoak. Idazketa. Gorputz artea. Guztia bizitzara eta perfumera bideratuak. Ez badut perfurmea jartzen egunero, lur jota geratzen naiz. Atsekabetuta. Bizitzarik gabe. Behiala norbaiti esan nion emakumea ez naizelako biltzen eta ematen ditudala perfumeak. Nire forma gorpuztuak ez du islatzen nire burmuinaren pentsamoldea eta identifikazioa. Baina ez dut amore emango. Ez naiz aldatuko. Ez dut obedituko. Patriarkatuaren aurka egin dezakedan gauzarik arriskutsuena gorputz honetan geratzea da, eta nire buruaz gizona banintz bezala mintzatzea. Ez naiz "binarioa", noski, inor ez da. Baina genero fluidoa dut, eta nire fluidotasuna nire desordenaren zehaztasunean gauzatzen da. Baldin eta forma kontrolarekin lotuta badago, forma likidotu eta desmaterializatu behar da. Mundu gisa norabide horretan jo behar genuke agian, ni neu prest nago. Internetek aukera berriak ekarri ditu, eta gizateria beste espezie bizidun batzuen parean jartzen ari da poliki-poliki. Egiazko forma sormenezko ekintza burujabeetan gauzatzen da, eta Cassilsek dioen moduan halako ekintzak iraultzaileak dira berez. Errepikapena, disonantzia eta haustura ziren Carolee Scheneemannen adierazmolde nagusiak, eta denok ikas genezake zerbait harengandik, eta bizitzaren zailtasunera makurtu, ahal



bezainbeste eta ahal dugun bezain sarri. Beldurrik gabe, eta ez horretara behartuta edo eraikita. Inoiz ez galdu aukerarik sortzailea izateko eta kosmosaren energia onen erritmora bibratzeko. Gure burua zer neurrikoa egiten dugun, halako handiak bakarrik izan gaitezke. Eta, lehen esan dudan moduan, iluminazio-modu gorenera iristeko, ohartu behar dugu ezen, santuak izateko, aurrez bekatariak izan behar genuela, eta, ahanzturaren aurrean, botere eta indar purua direla onginahia, apaltasuna eta xumetasuna.

\*1994. urtean Carolee Schneemann ezagutu nuen eta nire irakaslea izan zen Brooklyneko Pratt Institutuan

--

Editorearen oharra: Testu hau gonbidapen bidez idatzi da, Aimar Arriolak Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbaon ikertzaile kide gisa garatutako Un deseo de forma (2020-2023) proiektuaren barruan. Testuinguru berean, Sands Murray-Wassinkek "Working Title: Shahzia Sikander Catalysis" performancea aurkeztu zuen Bilbon, 2021eko azaroaren 18an. Testuak ez du ia ediziorik izan, eta Azkuna Zentroaren webgunean 2023ko otsailaren amaierarako argitaratzea dago aurreikusita. (Euskarazko itzulpena: Danele Sarriugarte.)